



**DEIALDIA, ETXARRI ARANAZKO UDALEKO KONTU-HARTZAILE IZATEKO LANPOSTU
BAT OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO, ALDI BATERAKO ETA ADMINISTRAZIO
ARAUBIDEAN**

OINARRIAK

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1 Deialdi honen xedea da betetzea, oposizio-lehiaketa bidez, kontu-hartzailearen lanpostu bat Etxarri Aranazko Udalaren zerbitzura, aldi baterako eta administrazio araubidean. Xedea da, halaber, deialdia gainditu duten izangaien poltsa bat eratzea.

1.2. Hautapen prozesu honen bitartez kontratatzen den pertsonak aldi baterako jardungo du eta lanpostua beteko du jabetzan hartzen dutenera arte, amortizatzen denera arte, kontratua eragin zuen arrazoa desagertzen denera arte edo irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren 8. artikuluan aipaturiko arrazoen bat gertatzen bada.

1.3. Bi hilabeteko probaldia ezartzen da eta horretan administrazio kontratatzaileak bere iritzia arabera ezeztatzen ahalko ditu prozesu honetan hautatutako langileekin formalizatutako kontratazioak.

1.4. Honako lansari hauek izango ditu lanpostuak: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan eta 1984ko uztailaren 4ko Lansarien Behin-behineko Erregelamenduan eginiko sailkapeneko A mailari dagozkionak, baita esleitzen zaizkion osagarriak ere, baldin eta administrazio kontratatzailearen plantilla organikoan ezarrita badaude.

1.5. Etxarri Aranazko Udaleko funtzionarioentzat oro har ezarritako lanaldia izango du. Edonola ere, administrazio organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko dute, zerbitzuaren premiei erantzuteko.

1.6. Kontratatzeko pertsonak, Etxarri Aranazko Udaleko kontu-hartzailetzako lanez gain, diruzaintzakoak eta ekonomia arloko arduradunaren lanak beteko ditu; horien artean honako hauek:

-Kontrola eta barne fiskalizazioa.

-- Tributuen ardura.

-Aholkularitza eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei eta kontabilitateari buruzkoa; txostenak; aurrekontu-proiektuak; ordenantzei buruzko azterlanak eta zerbitzu berrien egokitasunari buruzkoak eta horiek ekonomiaren eta finantzen arloetan duten eragina.

-Udal kontabilitateaz arduratzea eta hura aurrera eramatea. Lan horren barruan sartzen da aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko gastuen eta diru-sarreraren gaineko manamenduak ematea.

-Kontabilitateko zereginak, kontu orokorrak prestatzea eta aurrekontua likidatzea.

--Diruzaintzako planak prestatzea, esleitutako kobrantza eta ordainketa lanak aintzat hartuta, eta toki entitatearen funtsak, baloreak eta salgaiak maneiatzea eta gordetzea.



Etxarri Aranazko Udala

- Kontratazioek eta haien kudeaketak eragindako betebeharrak fiskalak eta sozialak betetzea.
- Dirubilketa zerbitzuko buru gisa jardutea.
- 9/1990 Foru Legearen 240. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako zereginak eta aplikatzekoa den araudiak une bakoitzaren lanpostu horri esleitutako guztiak.
- Dirulaguntzen jarraipena eta kontrola.
- Kontratazio espedienteen kudeaketa eta kontrola.
- Orobat, administrazio deitzaileko gobernu organo eskudunek esleitzen dizkieten zeregin ekonomiko eta finantzarioak.

2. oinarria. Izangaien betebeharrak.

Lanpostu honetarako lehiatzen direnek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

- a) Hamasei urte beteta izatea eta erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditua ez izatea.
- b) Nazionalitate espainarra izatea.
- c) Ekonomia Zientzietako edo Enpresa Zientzietako diploma edo Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako titulua edo Zuzenbide titulua edukitzea, edo 6/1990 Foru Legearen 246 bis 3 artikulua araberago dagozkion gradu titulua edo baliokideak.
- d) Enplegu-eskatzaile gisa egotea edo lana hobetzeko eskabidea egina edukitzea.
- e) Lanpostuan aritzeko gaitasun fisiko nahiz psikikoa izatea.
- f) Funtzio publikoan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez izana, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik berezia ere.
- g) Europako Esparru Bateratuko C1 mailako (idatzi eta ahozkoa) euskara-titulua izatea edo Mankomunitateak egingo duen euskara ezagutza proba gainditzea.

3. oinarria. Prozedura

3.1. Nafarroako Administrazio Publikoaren Sarbide Arautegiaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera (ekainaren 5eko 113/1985 Foru Legearen bidez onartua), aldi baterako langileak hautatzeko prozesua azkarra izan behar da kontratazioa erraztearren.

3.2. Kontu-hartzaile lanpostuaren zereginak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 240. artikuluetan eta hurrengoetan jasotakoak dira: barne kontrola eta fiskalizazioa eta aholkularitza eta kudeaketa ekonomikoa, alegia. Hortaz, udalaren eguneroko jarduna eta kudeaketa ez gelditzearren, prozeduran parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea murriztuko da. Ildo beretik, onartuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak Etxarri Aranazko Udalaren egoitza elektronikoaren Gardentasun Atarian argitaratuko dira.

3.3. Era berean, hautaketa-prozesuan onartu ahal izango dira baldintza horiek betetzen dituzten izangai guztiak, baldin eta enplegu-bulegoetako edozeinetan enplegua hobetzeko eskatzaile edo eskaera egoera badaude eta horretarako ezarritako epearen barruan aurkeztutako eskabidearekin batera hala egiaztatzen badute.

4. oinarria. Eskabideak.

PROTECCIÓN DE DATOS. Responsable del tratamiento: Ayuntamiento de Etxarri Aranatz. Objeto: selección de personal y provisión del puesto objeto de la presente convocatoria. Derechos: derechos de acceso, rectificación y supresión, así como otros derechos.



Etxarri Aranazko Udala

4.1. Oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera aurkeztu beharko dira, eta Etxarri Aranatzeko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako bat erabiliz. (<https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/info.0>).

Eskabidea 39/2015 Legean aurreikusitako bideren bat erabiliz aurkeztea erabakitzen baduzu, posta elektronikoko bat bidali beharko da idazkaritza@etxarriaranatz.eus helbidera, 24 orduko epean, administrazio-eraginkortasunaren ondorioetarako. Eskabidea posta-bulego batean aurkezten bada, gainera, gutun-azal irekian egingo da, posta-zerbitzuko langileek data eta zigilua jar ditzaten, ziurtatu aurretik.

Eskabideak aurkezteko epea 2023ko martxoaren 15ean amaituko da. Epe hori ezin izango da luzatu.

4.2. Eskabideari agiri hauen fotokopiak erantsiko zaizkio:

-NANA edo agiri baliokidea:

—2.c) eta g) oinarrian eskatzen den titulazioa edo eskaerak aurkezteko epea burutzen denerako hura erdiesteko moduan izango dela adierazten duten agiriak.

-Enplegu-eskatzaile edo enplegu-hobekuntza izatearen egiaztatzea.

-Deialdi honetako oinarrien arabera baloratzekoak diren merezimenduak.

Izangaiek helbide elektronikoko bat adieraziko dute eskabidean, han jasoko dituzte-eta jakinarazpenak.

Deialdiaren testua, I. eranskina, onartuen behin-behineko zerrenda, onartuen behin betiko zerrenda eta emaitzak Etxarri Aranazko Udalaren webgunean argitaratuko dira.

4.3. Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe hori luzaezina izango da.

Deialdiaren testua, I. eranskina, onartuen behin-behineko zerrenda eta behin betikoa eta hautaprobek emaitzak Etxarri Aranazko Udalaren egoitza elektronikokoan argitaratuko dira.

5. Oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.

5.1. Epaimahai kalifikatzaileak honako kide hauek izango ditu:

Mahaiburua: Silvia Marañón Chasco, Etxarri Aranazko alkatea. Ordezkoa: Lur Iosu Larraza López, Etxarri Aranazko Udaleko lehen alkateordea.

Lehen mahaikidea: Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak izendatuko du. Ordezkoa: izendatzen duena.

Bigarren mahaikidea: Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak izendatzen duena. Ordezkoa: izendatzen duena.

PROTECCIÓN DE DATOS. Responsable del tratamiento: Ayuntamiento de Etxarri Aranatz. Objeto: selección de personal y provisión del puesto objeto de la presente convocatoria. Derechos: derechos de acceso, rectificación y supresión, así como otros derechos.



Etxarri Aranazko Udala

Hirugarren mahaikidea: Nerea Malkorra Areolaza, Sakanako Mankomunitateko kontuhartzailea. Ordezkoa: izendatzen duena.

Mahaikide-Idazkaria: Miren Josebe Pereda Razkin, Etxarri Aranazko Udaleko idazkaria. Ordezkoa: izendatzen duena.

5.2. Epaimahaia ezin izango da eratu mahaiburua eta idazkaria bertan egon gabe eta ezin izango du jardun kideen gehiengo osorik gabe. Gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren arazo guztiak eta, berdinketa suertatuz gero, mahaiburuak kalitateko botoa erabil dezake. Epaimahaia aholkulari adituen laguntza izaten ahal du afera guztietarako nahiz batzuetarako.

6. oinarria. Behin behineko zerrenda eta behin betiko zerrenda.

6.1 Eskabideak aurkezteko epea amaituta, horiek aztertuko dira eta onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko da. Zerrenda Etxarri Aranazko Udalaren egoitza elektronikoaren Gardentasun Atarian eta ediktuen taulan argitaratuko da, eta bazter geratu direnek hiru egun baliodun izango dituzte alegazioak aurkezteko.

Zerrenda horretan izangaien izen-abizenak jasoko dira, eta, baztertutakoen kasuan, baita baztertzeko arrazoia ere. Horrez gain, izendatzeke dauden epaimahaikideak ere izendatuko dira.

6.2. Deialdiaren garapenari buruzko iragarki eta argitalpen guztiak Etxarri Aranazko Udalaren iragarki-taulan eta web orrian argitaratuko dira.

6.3. Behin-behineko zerrendak argitaratu eta hurrengo bost (5) egun baliodunen barruan, baztertutako izangaiak erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta, hala badagokio, egin ditzaketen akatsak zuzendu.

6.4. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, alkateak ebazpena emango du, eta onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartuko du. Baztertutako hautagairik ez badago, zuzenean onartuko da behin betiko zerrenda. Zerrenda horretan izangaien izen-abizenak jasoko dira, eta baztertutakoen kasuan, baita baztertzeko arrazoia ere, probak egiteko eguna, ordua eta lekua adierazita.

7. oinarria. Hautaketa prozesua.

7.1. Oposizio-fasea. Oposizio-fasea egun berean batera egingo diren bi ariketetan oinarrituko da, deialdi bakarraren bidez. Izangaiak NANA edo agiri baliokidea eraman beharko dute. Bertaratsen ez diren izangaiak kanporatuta geratuko dira. Ariketak plika itxien sistemaren bidez egingo dira.

PROTECCIÓN DE DATOS. Responsable del tratamiento: Ayuntamiento de Etxarri Aranatz. Objeto: selección de personal y provisión del puesto objeto de la presente convocatoria. Derechos: derechos de acceso, rectificación y supresión, así como otros derechos.



7.1.2. Proba teorikoa. Galdera eta/edo test mota batzuk erantzun beharko dira, idatzizko ariketa gisa, oinarri hauen II. eranskinean agertzen den gai-zerrendari buruzkoa.

Epaimahaiak erabakiko du probaren iraupena, ariketen edukia ikusita. Proba honen gehieneko puntuazioa 40 puntukoa izango da, eta oposiziotik kanpo geratuko da gutxienez 20 puntu lortzen ez dituen hautagaia. Okerreko erantzunak ez dira zigortuko.

7.1.3. Proba praktikoa: oinarri hauetako II. eta III. eranskinetan zerrendatutako gaietarako kasu praktikoa bat edo batzuk idatziz garatuko dira. Izangaia kalkulagailu zientifikoarekin joan ahal izango da probara. Epaimahaiak erabakiko du probaren iraupena, ariketen edukia ikusita.

Proba honetan gehienez 40 puntu lor daitezke, eta oposiziotik kanpo geratuko da gutxienez 20 puntu lortzen ez dituen hautagaia. Bi probak egin ondoren, ariketen plikak irekitzeko ekitaldi publikoa non, noiz eta zer ordutan egingo den ezarriko da. Ekitaldi horren ondoren, Etxarri Aranazko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko da pertsonen lortutako puntuazioa, eta hiru eguneko epea emango da izangaiek erreklamazioak egin ditzaten. Horiek ebatzi ondoren, behin betiko zerrendak web orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira. Probetara aurkeztutako pertsonen kopuruak aukera ematen badu, irekiera-ekitaldi hori probak egiten diren egun berean egingo da.

7.1.4 Hala ere, izangaietako batek ere proba guztiak gainditu ez baditu edo, hori egiaztatu ondoren, deialdia egin duen administrazioak kontratatzeari uko egiten badiu, administrazio horrek egin nahi duen kontratazioa formalizatu ahal izango du, hautaketa-prozesuan lortutako azken puntuazioaren ordena zorrotzari jarraituz, egindako lehenengo proba gainditu duenarekin. Kasu horretan, ez da kontuan hartuko lehiaketa-fasearen balorazioa.

Proba selektiboa egiten den bitartean, eskatzen duten minusbaliotasunen bat duen pertsonarentzat, adierazitakoaren arabera, proba egiteko denboraren eta bitartekoen egokitzapen posibleak ezarriko dira.

8. oinarria. Lehiaketa fasearen balorazioa.

8.1. Oinarri hauetan ezarritakoaren arabera, merezimenduak dituztela uste duten deialdi honetako izangaie guztiek agiri bidez egiaztatu beharko dute eskabidea.

8.2. Epaimahaiak izangaiei merezimenduak baloratuko ditu, Lehiaketa-faseko baremoa hurrengo paragrafoetan adierazitakoa izango da, eta guztira ezin izango da 20 puntu baino gehiago lortu. Hau da:

A.1. Nafarroako Toki Erakunde bateko kontu-hartzailera postuan emandako zerbitzu-urte bakoitzeko: 2 puntu, 10 puntu gehienez.

A.2. Zuzenbideko lizentziatura, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziatura, Ekonomiako lizentziatura, Aktuariotza eta Finantza Zientzietako lizentziatura edo Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentziaturako tituluak eskatu zaizkien edozein herri-administrazioetako lanpostuetan emandako zerbitzu-urte bakoitzeko: 1 puntu, gehienez 5 puntu.

A.3. Karguari dagozkion gaietan espezializatzeko edo hobetzeko ikastaroetara joateagatik: 5 eta 15 ordu arteko ikastaro bakoitzeko: 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko. 15 ordu



baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko: puntu 1 ikastaro bakoitzeko. Atal honen gehieneko balorazioa 5 puntukoa izango da.

8.3. Aipatutako balorazio-irizpideak aplikatzeko, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

- Urte kopurua edo lanaldia osoak ez badira, eman diren aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emango da.

- Baremo berean sartutako zerbitzuen bi ale ez dira ebaluatuko, baldin eta aldi berean egin badira.

- Eskabide-orrian edo zuzentzeko epean (onartutako edo baztertutako izangaien behin-behineko zerrendaren ondoren) jatorrizko dokumentuaren fotokopia edo behar bezala konpultsatutako merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan.

- Balorazioa egiteko, deialdia argitaratzen den egunera arte emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan.

9. oinarria. Ordezkapen poltsaren funtzionamendua.

9.1. Izangaien kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratuko du, lortutako behin-behineko puntuazio osoaren arabera, eta izangai bakoitzak lehiaketan eta oposizioan lortutako kalifikazioak batuko ditu. Proposamen horren aurka alegazioak aurkeztu ahal izango dira 3 egun balioduneko epean.

Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak puntuaziorik handiena duen izangaiaren aldeko kontratazio-proposamena egingo du.

Proposamen hori Etxarri Aranazko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratu beharko da, eta loteslea izango da deialdia egin duen Administrazio honentzat.

9.2. Aipatutako epearen barruan, eta behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiri horiek aurkeztu ez dituen ezin izango da kontratatu, eta bere jarduketa guztiak deuseztatu egingo dira, deialdian parte hartzeko eskabidean agiriak faltsutzeagatik izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

9.3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuan, edo behin kontratazioa eginda, lanpostua hutsik geratzen bada, Etxarri Aranazko Udalak 1.1 oinarrian aipatzen den gaituen zerrendako hurrengo hautagaiarekin bete ahal izango du lanpostua, eta aurreko ataletan adierazitako moduan jardungo du pertsona horrekin.

Gaituen zerrendak bost urteko indarraldia izango du lehenengo kontrataziotik aurrera, eta luzatu ahal izango da.



10. oinarria. Kontratazioa.

10.1. Hautaketa-prozesua amaitu eta izangaiak 9.2 oinarrian adierazitako agiriak aurkeztu ondoren, deialdia egin duen administrazioak administrazio-araubidean eta aldi baterako kontratatuko ditu kontu-hartzailearen lanpostua betetzeko. Ondorioz, kontratua formalizatuko da eta alta emango zaio Gizarte Segurantzako Erregimenean.

10.2. Kontratatua astebeteko epean itzuli beharko da kontu-hartzailearen lanpostura, kontratazioa jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Epe horretan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, karguaz jabetzen ez bada, eskubide guztiak galduko ditu. Kasu horretan, 9.3 oinarrian ezarritakoa beteko da.

10.3. Era berean, lanpostuaz jabetu ondoren sortzen den lanpostu huts oro zerrenda osatzen duten gaindituek bete ahal izango dute, 8.4 oinarrian ezarritakoaren arabera.

11. oinarria.- Ordezkapen-zerrendaren funtzionamendua.

Ordezkapen-zerrendako kideei dei egin ahal izango zaie, Etxarri Aranazko Udalean sortzen diren beharren arabera, deialdi honen oinarrietan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera.

Deialdia honela egingo da:

a) Zerrenda osatzen dutenek, errazago aurkitzeko, harremanetarako telefono bat eta helbide elektronikoa bat eman beharko dizkiote Udalari, gutxienez. Informazio hori beti eguneratuta eduki beharko dute.

b) Kontratu bat eskaintzen zaion zerrendako kide bakoitzari gutxienez bi lokalizazio-ahalegin egingo zaizkio 24 orduko epean, emandako harreman-bitartekoen bidez.

c) Zerrendako kide bat ezin bada aurkitu, zerrendako hurrengoarekin edo hurrengoekin jarriko da harremanetan, lanpostua bete arte. Harremanetan jarri ezin izan diren pertsonek dagokien zerrendan jarraituko dute.

Deialdi honetan xedatu ez denerako, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Agindua aplikatuko da.

12. oinarria.- Datuen babesa.

2. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan (DBEO) honako hau jakinarazten zaie hautagaiei:



Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Etxarri Aranazko Udala da.

Tratamenduaren helburua deialdi honen xede diren langileak hautatzea eta lanpostuak betetzea da.

Oinarri juridikoa hau da: 6.1.b) DBEOren Tratamendua, interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo, interesdunak eskatuta, kontratu aurreko neurriak eta DBEOren 6.1.c) Tratamenduaren erantzuleari aplika dakiokkeen legezko betebeharrak bat betetzeko beharrezko tratamendua.

Datuak jasotzen diren helburua betetzeko eta deialditik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira datuak. Artxibo eta dokumentazioaren araudian xedatutakoa aplikatuko da (Nafarroako Toki Entitateen dokumentuak ebaluatzen eta ezabatzen jarraibideak).

Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira (urriaren 30eko 5/2015 LED), argitalpena barne, 5/2018 Foru Legearen 19.2. f.

Titularrek sarbide, zuzenketa, ezabaketa, mugaketa, oposizio eta eramangarritasun eskubideak erabili ahal izango dituzte informazio gehiago aurkitzeko duten udal bulegoetan eta www.etxarriaranatz.eus webgunearen gardentasun atarian.

Halaber, eskubidea dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (aepd.es) erreklamazio bat aurkezteko, baldin eta uste badute tratamendua ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin, edo, aldezturik, datuak babesteko ordezkararen aurrean. Kasu horretan, gehienez ere bi hilabeteko epean helaraziko dio erabakia.

13. oinarria.- Errekurtsoa.

Deialdi honen aurka, haren oinarriek eta egintzek honako errekurtso hauetakoren bat aurkeztu ahal izango dute, nahi izanez gero:

a) Berraztertze errekurtsoa egintza eman duen organoari, jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

b) Gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, argitaratzen edo jakinarazten denetik hilabeteko epean.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzenean, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko agindu bereko salan, bi hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.



Etxarri Aranazko Udala

Gainera, Epaimahai Kalifikatzailearen erabakien aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Etxarri Aranazko Udaleko alkateari, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo hilabetean.

Etxarri Aranatzen, 2023ko otsailaren 21ean, Silvia Marañón Chasco alkatea.



ESKABIDE ORRIA (I. ERANSKINA).

Izen-abizenak:

.....,
adinez nagusia, NAN zenbakia: Jaioteguna:
Jaioterria (.....). Bizitokia :.....
(.....), kalea/zenbakia/solairua
Posta-kodea: Telefono mugikorra: Helbide
elektroni-
koa: agertu eta egoki den
moduan, ESKATZEN DUT:

- ✓ Etxarri Aranazko kontu-hartzaile lanpostua betetzeko hautagai zerrenda osatzeko deialdian onartua izatea. Lanpostua A mailakoa da.
- ✓ Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.
- ✓ Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.
- ✓ Ez naizela diziplinako espediente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik kanpo utzia izan, eta, era berean, ez nautela eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzi.
- ✓ Badudala deialdian adierazten den titulazioa.
- ✓ Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, behar diren baldintza guztiak betetzen ditudala.

Desgaitasuna dudala eta, beraz, behar ditudan egokitzapenak eskatzen ditudala, haietarako arrazoiak adierazita. (Eskatzen diren egokitzapenak eta haietarako arrazoiak azaldu). Desgaitasuna frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana
.....
.....

Euskara proba egitea eskatzen dudala.

- ✓ Eskabideari agiri hauen fotokopiak erantsi dizkiodala:
 - Nortasun agiri nazionala.
 - Eskatzen den titulazio akademikoa eta euskara titulua.
 - Merezimenduak, lehiaketaldirako.
 - Enplegu-eskatzailearen edo enplegu hobekuntzaren txartelaren kopia.

Minusbaliatua naizela frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.

Azaldutakoagatik, honako hau ESKATZEN DUT:

Onartua izatea Etxarri Aranazko Udalaren kontu-hartzaile lanpostua aldi baterako eta administrazio-araubidean betetzeko deialdian.

Etxarri Aranatz, 2023ko(a)ren.....(e)an

(Sinadura)



GAI-ZERRENA (II. ERANSKINA)

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea garatzen duena aurrekontuen eta gastu publikoen arloan.
- 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Jarraibide Orokorra onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa.
- 272/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Jarraibide Orokorra onesten duena.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren Testu Bategina onartzen duena.

III.ERANSKINA

- Kapitalizazio eta eguneratze bakun eta konposatua. Deskontu komertzial eta arrazional simple eta konposatua. Epemuga arrunta eta batez besteko epemuga. Hitzarmen lineala eta esponenziala. Hainbeste baliokide kapitalizazio simple eta konposatuan. Bai eskudirua, bai nominala, bai zatikatua eta bai aurrez ordain daitekeena.
- Errentak Kontzeptuak eta sailkapenak.
- Maileguak. Amortizazio-sistemak: Diru-itzulketa bakarra, interesen aldizkako ordainketa duen amortizazio bakarra, sistema frantsesa, amortizazio-kuota konstantea, progresio aritmetiko eta geometrikoko urteko aldakorra. Interes zatikatuekin amortizatze metodoa. Kapitalak eratzea.